



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2024-01-17 **Bilera zenbakia:** 34

Bilera ordua eta lekua: 19:00 bilera gelan

Parte-hartzaileak: Rosario, Mari, Nagore, Unai, Garazi eta Nerea

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordeko etxeko lanak.

Azaroko batzordean aipatu genuen garrantzitsua zela elkarte eta foro honetako partaideak gaiak ekartzea bileretan lantzeko. Informazio-emate bilera bakarrik izan ez dadin.

2. Azken ekintzen balorazio laburra

Gaztain jana: Aurrekoetan baina jende gutxiago ibili da. Agian, ekintza gehiegi izan dira hilabeteen zehar. Hobe da gutxi eta ondo egitea, jendeak bestela ez du parte hartzen.

Kantu afaria: Herriko oso jende gutxi egon zen, ekintza honen antolaketan errelebo aldaketa eskatu du.

Jostailu azoka: Ondo joan zen, material ugari trukatu zen.

Kamiseta salmenta: Gazteek ongi baloratu dute ekintza, 45 kamiseta inguru saldu omen zituzten.

Talo jana: Jende ugari eta parte hartze handia. Taloak egiteko erreleboa ari gara sortzen eta egonkortua dagoen ekintza dugu.

Treba gurasoak: 15 bat partaide izan ziren, ama zein aita. Telegram erabili zen itzulpengintzarako. Motz gelditu zen eta gurasoek jarraipena ematea proposatu zuten, gazteri foroan tratatuko da.

Ameli kontaketa: Heldu eta haurrentzako emanaldiak izan ziren eta oso oso politak izan ziren. Haurretan talde handia eta helduetan berriz, txikia (7 lagun).

Olentzero eta Maridomingi: Ohiko ekintza arrakastatsua. Eguraldia lagun, giro aparta izan zen.

3. Hurrengo ekintzak herrian

Urtarrilak 19, 26 talo jana. Izen ematea bergogoratu da.

Otsailaren 17an zuhaitz eguna

Otsailaren 16an haurrentzako ekintza. Zirku tailerra izango da

Otsailaren 23an Memegintza tailerra

4. Hitzarmen justifikazioak

Justifikazioak egin dira eta alkate dekretuak prest dira, ordainketa agindua ere.

5. Urteko kudeaketa planak

- Kultur agenda osatzen: Gazteek diote, gazte eguna ekainaren 1/8an egingo dela.
- Liburutegiaren egoera: Zaila da eskolako haurrak bertan egonda egoera egokian izatea liburutegia.
- Aldizkariaren kronograma

ITSASONDO 0.2 ALDIZKARIA KRONOGRAMA 2024		
	LANAK	EPEAK
56. ALEA Martxo	Artikuluak jaso	Urtarrilak 15-26
	Artikulu repeska	Urtarrila 29 -Otsailak 2
	Zuzenketak	Otsailak 5-9
	Maketa/ gero imprenta	Otsailak 12-22
	Buzoneatzeko	Otsailak 22-23
57. ALEA Uztaila	Artikuluak jaso	Maiatzak 20-maiatzak 31
	Artikulu repeska	Ekainak 3-7
	Zuzenketak	Ekainak 10-14
	Maketa/ gero imprenta	Ekainak 17- 27
	Buzoneatzeko	Ekainak 27-28
58. ALEA Azaroa	Artikuluak jaso	Irailak 30- urriak 11
	Artikulu repeska	Urriak 14-18
	Zuzenketak	Urriak 21-25
	Maketa/ gero imprenta	Urriak 28- azaroak 7
	Buzoneatzeko	Azaroak 7-8

- Herri bizitza batzordeko egutegia
Otsailak 7, martxoak 6, apirilak 10
Maiatzak 8, ekainak 5, uztailak 10 eta irailak 4 jai batzordeak izango dira.
Urria 9 eta azaroak 6

6. Elkartetatik datozenak.

Jubilatuek aipatzen dute memoria tailerrean berriz hasi dira, hiruhileko berria. 3 lagun gutxiago daudela.

Bi elkarteek aipatzen dute, errelebo falta dutela. Aldizkarian agian bi elkarten berri eman daiteke. Arbelaitzen junta aldaketa egingo dela aprobetxatuz, artikulua txertatu daiteke.

7. Besteak:

- 2024 udal aldizkaria, balorazioa: Azken momentuan egin da, eta argazki batzuek ez dute kalitate ona.

Hurrengo urteko gaia, eta argazkiak biltzen joateko gaia aukeratu beharko genuke.

- Gaztelekua irekitzeko txartela sistema berria ezarriko da: Arautegia landu da gaztelekuko erabiltzaileekin eta orain udalbatzatik pasatzea falta da eta martxan jartzea.
- Mediki berria dugu herrian, Mariasun Oiarbidea.
- Catering zerbitzuak begiratzen ari gara, herrian egiten diren ekintzetan otorduak eskaintzeko aukera izateko.
- Kulturartekotasuna: Herrian egiten diren ekintzetan kulturartekotasunaren begirada izateko hausnarketa partekatu da. Udal taldean lantzen dabilta eta formazio bat eskainiko da.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Elkarteetan komentatu gaztain jana/talo jana/ kantu afariko datak aldatzea? Jarraian ez egiteko.</i>		
<i>Ekintzetan izen ematearen garrantzia komentatu bileretan.</i>		
<i>2025eko udal egutegirako gai proposamanek ekarri.</i>		
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Otsailak 7, 19:00etan		